



AGINDUA, 2020KO OTSAILAREN 3KOA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAREN 2020KO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN BAITA

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8.1 artikulua adierazten du administrazio publikoetako organoek eta dirulaguntzak ezartzeko proposamena egiten duten erakunde guztiek Dirulaguntzen Plan Estrategikoa egin behar dutela dirulaguntzak ezarri baino lehen, eta plan estrategiko horretan honako alderdi hauek zehaztu behar dituztela: plana aplikatzean lortu nahi dituzten helburu eta ondorioak, helburu zein ondorio horiek lortzeko epea, aurreikusitako kostuak, eta finantzaketa- iturriak. Horretan guztian, aurrekontu-egonkortasunerako helburuak bete beharko dituzte.

Eskakizun hori betetzeko, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak plan batean zehaztu ditu 2020an egikaritu nahi dituen programak eta diruz lagundutako jarduerak, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko 2017-2020ko Plan Estrategikoan zehaztutako lan-ildoak eta ekimen estrategikoak ezartzeko eta garatzeko lanean jarraitzeko; azken finean, Euskadi 2020. Gobernu Programaren bidez hartutako konpromisoak aintzat hartzeko.

Plan horren helburuak hauek dira: turismoa sendo haztea, enplegu gehiago eta hobearekin eta Euskadiko merkataritza-sektorearen lehiakortasuna sustatzea. Plana azkeneko bi urteotan egikaritutako programa eta diruz lagundutako jardueren bidez lortutako emaitzekin egin da.

Planean jasotako jardueren xehetasunak printzipio hauetan oinarritu da: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateginaren 3 eta 49.1 artikulua (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua), azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorreko 8.3 artikulua; 13/2019 Legea, abenduaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2020. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen; eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak Dirulaguntzen Plan Estrategikoei buruz eman zuen 01/15 zenbakidun zirkularrak ezarritakoa.

Horregatik guztiagatik eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua esleitzen dizkidan eskumenen babesean

EBAZTEN DUT

LEHENA. - Eranskinean jasota dagoen Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2020ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea.

BIGARRENA. - Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 3an

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILBURUA
SONIA PÉREZ EZQUERRA



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1YG0-KQPE bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1YG0-KQPE en la sede electronica <http://euskadi.eus/localizador>



ERANSKINA

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILEKO DIRULAGUNTZEI BURUZKO PLAN ESTRATEGIKOA**1.- Planaren justifikazioa.**

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 8.1. artikuluan ezartzen du dirulaguntzen plan estrategiko bat edukitzeko betebeharra dagoela. Plan horretan, sailaren dirulaguntzei dagokienez, horiek emanda lortu nahi diren xedeak eta ondorioak, esleitzeko epeak, aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa-iturriak identifikatu beharko dira, aurrekontu-egonkortasuneko xedeak betez betiere.

Manu hori betetzeko sailek izan beharreko jarduna bideratzeko, 1/2015 zenbakiko zirkularra onartu du Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, dirulaguntzen plan estrategikoak egiteari buruzkoa, zenbait neurri biltzen dituena plan horiek egin eta onartzeari begira.

Zirkular hori betetzeko egin da plana, bertan ezarritako edukiarekin eta dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean eskatutakoa beteta.

2.- Aplikatu beharreko eremua.

Planak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren dirulaguntzen inguruko jardura jaso du. Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua erakunde autonomoaren dirulaguntzen inguruko jarduerari buruz beste plangintza-dokumentu bat egin da. Basquetour-Turismoaren Euskal Agentzia-Agencia Vasca de Turismo SA sozietate publikoaren jarduerarik ez da jaso dirulaguntzei dagokienez, ez baitzegoen aurreikusita.

Planari ezarritako denbora-tartea 2020 aurrekontu-ekitaldia da. Dirulaguntzen programei dagozkien fitxek 2020. urteei dagozkien aurrekontu-zuzkidurak jasotzen dituzte halaber.

3.- Planaren edukia

Planak izaera programatikoa du eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari dagokion politikaren plangintza-tresna baten gisa konfiguratu da haren jarduketa-eremu estrategikoetan. Merkataritzaren sektorean hainbat programa garatu dira lehiakortasuna eta modernizazioa sustatzeko, hiri-eremuen merkataritza kudeatzeko eta sektorean eta lurraldean politika egokiak aplikatzeko.

Eta, turismoaren esparruan, turismoaren hazkunde-eredu dibertsifikatu bat sustatzeko ekintzak sustatzen ditu, kalitatea eta lurralde-oreka ardatz dituztenak, betiere bikaintasunean, jasangarritasunean, turismo esperientzian eta Euskadi-Basque Country herrialdeko marka turistikoan oinarrituz.

Plan estrategikoak barne hartzen dituen dirulaguntzen lerroek Euskadiko baliabide turistikoak sustatzea, produktu turistikoak diseinatu, martxan jarri eta merkaturatzea bultzatzea, eskaintza dibertsifikatzea — eskari espezializatuari erantzuteko, bikaintasun-turistaren targeta kontuan hartuta — eta produktuak mota guztietako formatu berritzaileetan merkaturatzea dute helburu. Zentzu horretan, Saileko antolamendu-unitateek zehaztutako ardatz estrategikoak identifikatzen dira jarraian.



4.- Ardatz estrategikoen eta helburuen identifikazioa

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa XI. bat dator Legealdiko 2020rako Gobernu Programaren konpromisoekin, eta, konpromiso horien barruan, Sailaren jardun- eremukoekin; alegia, **ardatz estrategiko** hauekin:

4.1.- Hazkunde turistiko sendoa, enplegu gehiago eta hobekoa

4.2.- EAEko merkataritza-sektorearen lehiakortasuna sustatzea

4.1. Hazkunde turistiko sendoa, enplegu gehiago eta hobekoa

Jarduera turistikoaren alorrean, Sailak bultzatutako politika publikoaren helburuen muina turismoaren hazkunde-eredua dibertsifikatzea da, kalitatean eta lurralde-orekan arduatua.

Horretarako, alor horretan Sailaren jarduketaren bidez lortu nahi dituen **helburu estrategikoak** hauek dira:

- a) EAEko jarduera turistikoan bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatzea
- b) Herrialdeko marka turistikoa: Euskadi-Basque Country

Horren harira, uste dugu lehentasunezkoa dela erakundeek eta agenteek akordio bat egitea, Euskadiko turismoa egoki kudeatzeko, eta turismoaren hazkunde-eredua zehaztea, bai eta helmuga mota turistikoa ere, aberastasunaren, ongizate jasangarria eta kalitatezko enplegua lortzeko xedearekin betiere.

Helburu orokorren barruan, dirulaguntzei buruzko politikak konpromiso hauek hartzen ditu barnean:

a) EAEko jarduera turistikoan bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatzea

Helburu estrategiko horretan, dirulaguntza-lerro hauek jaso dira: Euskadiko baliabide turistikoak sustatzera bideratutakoak; eskaintza dibertsifikatzekoak, eskari espezializatuari arreta emateko, bikaintasuneko eta beste sektore batzuei ere balio-ekarpina egiten dien turista-targetaren arabera; edozein formatu berritzaileko produktuak merkaturatzea (App-ak, GPS...), eta aliantzak egitea; eta turismoaren, merkataritzaren eta EAEko jatetxeen arteko sinergiak sustatzea, eta bereziki kongresu, konbentzio eta azoken segmentuarekin (Convention Bureaux, MICE) eta turismo enogastronomikoarekin.

Era berean, ekintzailetzari lagunduko zaio, negozio turistiko berriak sortzeko eta sektorea modernizatzeko eta berritzeko; horrez gain, industria turistiko publiko-privatuaren lankidetzaren sustatuko da, lehiakorragoak izateko helburuarekin.

Horrez gain, produktu eta esperientzia turistikoak sortzen eta horiek merkaturatzen lagunduko duten proiektuen garapena sustatu nahi da, baita Euskadi Basque Country marka turistikoaren posizionamendua sendotzen eta ostatu-gauen kopurua handitzen lagunduko duten ekitaldiak ere.

Gure iritzian, turismoa garatzeko hazkuntzako, lurralde orekako eta garapen jasangarriko eta arduratsuko irizpideei jarraitu behar zaie. Jasangarritasunaren aldeko apustua egiten dugu, ingurumenari buruz ez ezik, aurrerapen ekonomiko eta soziala eta langileentzako zein gizartearentzako oro har enplegu- eta bizitza-kalitatea eragiteari dagokionez ere bai; era berean, turismo-jardueran aritzeko jokabide etiko eta arduratsu baten aldeko apustua egiten dugu, eta, horretarako, beharrezkoa da EAEko turismo-eragile guztien lankidetzaren eta erantzukizun partekatua.



Zentzu horretan, Euskadiko Turismoaren Kode Etikoan jasotako printzipioak jaso eta ezarriko dira dagozkion programa, arau eta praktika profesional guztietan, konpromisoa bilatuz.

b) Herrialde-marka: Euskadi-Basque Country

Nazioartekotzeko partekatutako estrategiaren ildoetako bat sustapena da, Euskadi-Basque Country herrialde-markaren bidez. Marka hori EAEko administrazio turistikoa integratzeko eta bateratzeko elementua da.

Euskadi helmuga bakan bihurtzen duten elementuak bultzatuko dira oinarriko erreferentziazko elementu gisa, Euskadi-Basque Country marka turistikoa posizionatzeko. Eta marka foroetan eta nazioarteko azoketan indartuko da.

Zentzu horretan, ekitaldiak antolatzen lagunduko da, baldin eta haien garrantziagatik eta parte hartutako publikoagatik zein hedabideetan duten oihartzunagatik, Euskadiren irudia eta turismo-posizionamendua sendotzen ez ezik, ostaturaguen kopurua handitzen ere laguntzen badute

4.2.- EAEko merkataritza-sektorearen lehiakortasuna sustatzea

Merkataritza-sektoreak egitura-aldaketa sakonei erantzun behar die, eta erronka nagusia kontsumitzaileen erosteko ohitura berrietara egokitzea da. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta banaketa- bide berrien agerria direla eta, beharrezkoa da estrategia berriak eta negozio-eredu berriak hartzea, sektorearen lehiakortasuna hobetzeko.

Saltoki txiki eta ertainek ekonomikoaz bestelako balioa ere ematen diete gure auzoei, herriei eta hiriei, bizia ematen baitie eta dinamizatu egiten baititu. Arreta-gune bihurtzen ditu eta erakarpen turistikoa handitzen du, ekonomikoki zenbatu ezin diren baina balio soziala duten onurez beteta; adibidez, ospea, kalitatea, produktua ezagutzea eta arreta pertsonalizatua. Horretarako, merkataritzak kudeaketa publikoaren sustapena behar du, pribatuarenaz gain, eraberritzeko eta kudeaketa-estrategia berriak lantzeko. Gainera, beharrezkotzat jotzen dugu EAEko merkataritza-sektoreen sustapen- eta sentsibilizazio-kanpainak lagun izatea, garrantzia emateko, sektore ekonomiko gisa ez ezik, baita gure gizartearen oinarriko egituraren parte gisa ere.

Zehazki, honako hauek dira helburu estrategikoak:

- a) Sektorea modernizatzea eta gazteentzat erakargarri egitea.
- b) Enpresen lehiakortasuna.
- c) Hiri Eremuen Merkataritza Kudeaketa eta Politikak sektorera eta lurraldera eramateko tresnak.

Ildo horretan, dirulaguntzei buruzko politika honako konpromiso hauetan kokatzen da:

a) Sektorea modernizatzea eta gazteentzat erakargarri egitea

Ikerketa eta garapenerako proiektu berriak eta merkataritza digitalizatzea azkartzeko ekimenak sustatzea bultzatuko dugu, baita merkatu erabat globalizatuan, arlo digitalari dagokionez, posizionatzea ere. Halaber, datu-iturri berriak berrikusteko, sistematizatzeko eta erabiltzeko balioko dituzten tresnak bilatuko dira; alde batetik, politikak definitzeko euskarri izango dira, eta bestetik, sektoreko eragile desberdinen artean ezagutza komunikatzeko eta trukatzeko bideak sortzeko.

b) Enpresen lehiakortasuna

Elkarte-egiturak indartuta, errazagoa izango da ezagutza piltzea, berrikuntzak egitea eta teknologia berriak sartzea, eta horrek merkatu gero eta dimentsionatu eta zorrotzago honetan lehiakorragoa izatea ekarriko du. Zonakatzearen



ikuspegitik ez ezik, baita merkataritzaren beraren sektorializazioaren ikuspegitik ere. Horregatik, hain zuzen, Zuzendaritza honek merkataritzako azpisektoreak aztertzea ere sustatzen du; izan ere, ondo daki hain kasuistika desberdina duten eragileen artean dauden desberdintasunak, bai egiturazkoak bai egoerari dagozkionak, handiak direla.

c) Hiri Eremuen Merkataritza Kudeaketa eta Politikak sektorera eta lurraldera eramateko tresnak.

Hiriguneak suspertzea, eremu hauek landuz: merkataritzaren eta turismoaren sustapena, segurtasuna, hirigintza, trafikoa, bide publikoa, mantentze-lanak eta garbiketa. Horiek guztiek hiriguneen merkataritza- banaketari eragiten diote eta, beraz, eragindako erakunde publiko eta pribatu guztien lankidetzari behar dute horiek garatu eta finantzatu ahal izateko.

Politikak sektorera eta lurraldera eramateko erremintak sustatzea: finantzatutako egiturazko gastuek barne-kudeaketa hobetzen laguntzen dute, eta horrek dagokien merkataritza-sektorean eragingo du.

5.- Diruz lagundu daitezkeen programen laburpena

Ondoren, identifikatu egin dira, laburpen gisa, dirulaguntza programa guztiak egikaritzeko aurreikusitako **kostuen datu globalak**, programa horiek sailak bere egiturari dituen antolakunde-unitateekin lotuta.

Azkenik, planak fitxa bat biltzen du dirulaguntza programentzat, eta bertan bilduko ditu helburuak, ekintzak eta adierazleak, aurreikusitako denbora-jokalekuarekin, helburu dituen sektoreak, dirulaguntzak emateko prozedura, beharrezkoak diren aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa publikoaren ehunekoak.

1.- ARDATZ ESTRATEGIKOA:HAZKUNDE TURISTIKO SENDOA, ENPLEGU GEHIAGO ETA HOBEKOA

Organo kudeatzailea: Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza

1.- Objetivo Estratégico: FOMENTO DE LA EXCELENCIA Y LA SOSTENIBILIDAD EN LA ACTIVIDAD TURÍSTICA VASCA

Fitxa	Dirulaguntzen lerroa	2020 zenbatekoa	2021 zenbatekoa
1.1.1	Sektoreko elkarrekin bideratutako dirulaguntzak, jardura turistikoan bikaintasuna sustatzeko	412.950 €	
1.1.2	Lurralde-proiektuetarako laguntza	1.450.000 €	
1.1.3	Ekintzailetzarako eta turismo-enpresen lehiakortasunaren hobekuntzarako laguntzak (EMET).	652.000 €	
1.1.4	Hiru lurralde historikoetako Merkataritza ganberari bideratutako dirulaguntzak "Berriz Empresa" izeneko enpresa transmisioaren programarako	83.000 €	
1.1.5	Turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntzak (CTP)	717.000 €	
1.1.6	Prestakuntza Deustuko Unibertsitatearekin	25.000 €	
1.1.7	Dirulaguntza ISEAK Fundazioari	40.000 €	40.000
1.1.8	Dirulaguntza Basque Culinary Center erakundeari	50.000 €	
	GUZTIRA	3.429.950 €	40.000 €



2.- Helburu estrategikoa: HERRIALDEKO MARKA TURISTIKOA: EUSKADI BASQUE COUNTRY

Fitxa	Dirulaguntzen lerroa	2020 zenbatekoa	2021 zenbatekoa
1.2.1	Dirulaguntza, Euskadiko hiru jazz-jaialdietarako (Getxo, Gasteiz eta Donostia)	60.000 €	
1.2.2	Dirulaguntza izenduna Donostia Zinemaldia S.A. erakundeari.	50.000 €	
1.2.3	Dirulaguntza izenduna Asociación Cultural Fila2 elkarteari:FesTVal antolatzea.	40.000 €	
	GUZTIRA	150.000 €	

2.- ARDATZ ESTRATEGIKOA: MERKATARITZA-SEKTOREAREN LEHIAKORTASUNA SUSTATZEA

Organo kudeatzailea: Merkataritza Zuzendaritza

1.- Helburu estrategikoa: SEKTOREA MODERNIZATZEA ETA GAZTEENTZAT ERAKARGARRI EGITEA

Fitxa	Dirulaguntzen lerroa	2020 zenbatekoa	2021 zenbatekoa
2.1.1	Merkataritzako establezimenduak modernizatzea (MEC)	1.250.000 €	
2.1.2	Dirulaguntza, EUSKALIT fundazioarentzat, merkataritzarako kudeaketa aurreratuko programa bat garatzeko	150.000 €	
2.1.3	Dirulaguntza, hiru lurralde historikoetako merkataritzaganberetarako, merkataritza sustatzeko jardueren programa garatzeko. ADENDA.	150.000 €	
2.1.4	EKINTZAILETZA sustatzeko laguntzen programa, udal, autonomo eta enpresentzat.	1.937.000 €	360.000 €
2.1.5	Dirulaguntza, hiru lurralde historikoetako merkataritzaganberetarako, BERRIZ ENPRESA enpresa-transmisiorako programak garatzeko.	250.000 €	
	GUZTIRA	3.737.000 €	360.000 €

2.- Helburu estrategikoa: ENPRESEN LEHIAKORTASUNA

Fitxa	Dirulaguntzen lerroa	2020 zenbatekoa	2021 zenbatekoa
2.2.1	Dirulaguntza hiru lurralde historikoetako Merkataritza Ganberei E-COMMERCE programak eta aplikazioak garatzeko	1.100.000 €	
2.2.2.	Merkataritza Bonua	300.000€	
	GUZTIRA	1.400.000 €	



3.- Helburu estrategikoa: HIRI-EREMUEN MERKATARITZA-KUDEAKETA ETA POLITIKAK SEKTORERA ETA LURRALDERA ERAMATEKO TRESNAK.

Fitxa	Dirulaguntzen lerroa	2020 zenbatekoa	2021 zenbatekoa
2.3.1	Hiri-eremuetan merkataritza dinamizatzeko udalerrientzako programa eta zonakako estrategiak garatzeko elkarreentzako laguntza. HIRIGUNE	3.017.030 €	550.000 €
2.3.2	Hiri-eremuetan merkataritza dinamizatzeko eta sustatzeko hitzarmenak. GERENTES.	285.000 €	
2.3.3	Dirulaguntza, LAURAK BAT Pasaiaiko Merkatarari, Ostalari eta Zerbitzu Elkarteari, OIARTZUALDEA suspertzeko proiekturako	46.200 €	
2.3.4	Dirulaguntza, ERRENKOALDEri, OIARTZUALDEA suspertzeko proiekturako	58.800 €	
2.3.5	Dirulaguntza, EZKERRADENDARI, Ezkerraldeko eta Meatzaldeako merkataritza suspertzeko	120.000 €	
2.3.6	Dirulaguntza ITURRI Oiarzungo Merkatarari Elkarteari, merkataritzaren suspertze-proiekturako	15.000 €	
2.3.7	Dirulaguntza, Euskomerri: CECOBi, Gipuzkoako Merkatarien Federazioari (FMG) eta AENKOMER, egitura-gastuetarako.	420.000 €	
2.3.8	Dirulaguntza, EUSKALDENDAK konfederazioari: BIZKAIDENDAK, DENDARTEAN eta ARABADENDAK, egitura-gastuetarako.	170.000 €	
2.3.9	Dirulaguntza, EUSKOMER konfederazioari, estrategia sektorialak garatzeko eta merkataritza-sektorea sustatzeko.	550.000 €	
2.3.10	Dirulaguntza, FICOBARI, sustapen-ekintzetarako.	200.000 €	
2.3.11	Dirulaguntza, EUSKALDENDAK konfederazioari, merkataritza sustatzeko ekintzetarako eta elkarreentzako arteko lankidetzarako	450.000 €	
2.3.12	Dirulaguntza, HIRIA 3.1 Euskal Autonomia Erkidegoko Hiriburuetako Merkataritza Plataformen Federazioari, tokiko merkataritzari balioa emateko.	150.000 €	
2.3.13	Dirulaguntza, MBT Merkataritzako Bulego Teknikoentzat	1.447.600 €	361.900 €
2.3.14	Tokiko merkataritza txikia suspertzeko plana	600.000€	
	GUZTIRA	7.529.630€	911.900 €

4-Helburu Estrategikoa: ENPLEGUA ETA KUALIFIKAZIOAK

Fitxa	Dirulaguntzen lerroa	2020 zenbatekoa	2021 zenbatekoa
2.4.1	Dirulaguntza hiru lurralde historikoetako Merkataritza Ganberei Retail Euskal Eskola garatzeko	800.000€	
	GUZTIRA	800.000,00 €	

Fitxa 1.1.1

Helburu estrategikoa:	Jarduera turistikoan bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatzea
Organoa:	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza
Programa:	Turismoa (75111)
Dirulaguntzen lerroa:	Dirulaguntza izendunak sektore-elkarteentzat

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		2020
Helburuak	Turismo-eskaintzaren balio erantsia areagotzea, Euskadi aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzeko gaitasun handiagoa duen kalitate eta bikaintasuneko helmuga izan dadin	3
Ekintza	Elkarlana bultzatzea turismo-estrategiak garatzeko	
Adierazlea	Dirulaguntza izendunak Ostalaritzako elkartei, Euskadiko turismo-industria indartu eta turismo-jarduerako bikaintasuna sustatzeko (SEA Arabako Enpresariak, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartea, Bizkaia Ostalaritza Elkartea)	

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-portzentajea, finantzaketa publiko osoaren aldean		
	2020	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
4. kapitulua	412.950 (Bizkaia Ostalaritza Elkartea: 185.850 €, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartea: 144.500 €; SEA Arabako Enpresariak,: 82.600 €)	1

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Gipuzkoako eta Bizkaiko Ostalaritza Elkartek eta SEA Arabako Enpresak (ostalaritza-sektorea)
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua	Dirulaguntza izenduna

Fitxa 1.1.2

Helburu estrategikoa		Jarduera turistikoan bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatzea	
Organoa:		Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	
Programa:		Turismoa (75111)	
	Dirulaguntzen lerroa	Lurralde-proiektuetarako laguntza 2020	
Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
			2020
Helburua	Turismo-eskaintzaren balio erantsia areagotzea, Euskadi aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzeko gaitasun handiagoa duen kalitate eta bikaintasuneko helmuga izan dadin		
Ekintza	Turismoko produktu lehiakorren sorrera sustatzea		
	Adierazlea	Gure ingurunearen eta Euskadiren ezaugarri bereizgarriak oinarri dituzten turismo-produktuak sortu, garatu, sustatu eta merkaturatzea bultzatzea	
		Onartutako eskabideen kopurua	30
		Onartutako proiektuen kopurua, produktu motaren arabera (gastronomia, bilerak, natura, kultura eta bestelakoak)	90
		Turismoko produktuak garatu eta kudeatzeko sortu/mantendutako enplegua (zuzenean edo laguntza teknikoa)	35
Ekintza	Sektorearen profesionalizatzea sustatzea eta turismo-arloko lanbideak babestea		
	Adierazlea	Helmugatan kalitatezko programak ezartzen laguntzea: Smart Business, Europako Etiketa Ekologikoa eta abar.	
		Programak ezartzen lagundutako helmuga kopurua	23
		Prestatutako enpresa kopurua	700
		Sortutako/Mantendutako enplegua	23

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-portzentajea, finantzaketa publiko osoaren aldean		
	2020	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
4. kapitulua	1.450.000	1

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	EAE n kokatuta dauden eta beren jarduketara-eremuan turismoa sustatzeaz arduratzen diren erakunde publikoak eta pribatuak, edo eskualdeko lankidetzara turistikorako erakunde gisa edo eskualdez gairako produktu turistikoaren kudeatzaile gisa jarduten dutenak.
Emakida-prozedura eta instrumentalizatze modua:	Lehia. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia Antolatze Arauei buruzko Legearen Testu Bategineko 51.6. artikulua

Fitxa: 1.1.3

Helburu estrategikoa:		Jarduera turistikoan bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatzea	
Organoa:		Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	
Programa:		Turismoa (75111)	
Dirulaguntzen lerroa		Ekintzaitzarako eta turismo-enpresen lehiakortasunaren hobekuntzarako laguntzak (EMET)	
Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
			2020
Helburua	Turismo-eskaintzaren balio erantsia areagotzea, Euskadi aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzeko gaitasun handiagoa duen kalitate eta bikaintasuneko helmuga izan dadin		
Ekintza	Modu jasangarrian, turismoaren industriako enpresen ekintzaitza sustatzea eta lehiakortasuna hobetzea, eta eskaintza dibertsifikatzen laguntzea, eskari espezializatuari begira		
Adierazlea 1	Ekintzaitzari laguntzea, turismoaren esparruko negozio berriak sortzeko: Lagundutako enpresen kopurua Sortutako/Mantendutako enplegua Eragindako inbertsioa		15 24 1.000.000
Adierazlea 2	Berrikuntza teknologiarri laguntzea eta turismoaren alorreko enpresen eta zerbitzuen kalitatea hobetzea, eta eskaintza turismo jasangarrira egokitzea Lagundutako enpresen kopurua Sortutako/Mantendutako enplegua Eragindako inbertsioa		86 1.200 2.500.000
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-portzentajea, finantzaketa publiko osoaren aldean			
		2020	
		Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
7. kapitulua		652.000	1
Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura			
Helburu dituen sektoreak:		EAEko sektore turistikoan lan egiten duten pertsona fisikoak, enpresak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak	
Emakida-prozedura eta instrumentalizatze modua:		Lehia. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia Antolatze Arauei buruzko Legearen Testu Bategineko 51.4. artikulua	

Fitxa 1.1.4

Helburu estrategikoa:		Jarduera turistikoan bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatzea	
Organoa:		Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	
Programa:		Turismoa (75111)	
	Dirulaguntzen lerroa	Merkataritza ganberari bideratutako dirulaguntza izendunak "Berriz Empresa" izeneko enpresa transmisioaren programarako	
Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
			2020
Helburua	Turismo-eskaintzaren balio erantsia areagotzea, Euskadi aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzeko gaitasun handiagoa duen kalitate eta bikaintasuneko helmuga izan dadin		3
Ekintza	Enpresa-ekimenari laguntzea.		
Adierazlea 1	Arabako Merkataritza eta Industriako Ganbera Ofizialari, Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberari eta Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberari, emandako dirulaguntza izendunen kopurua		
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-portzentajea, finantzaketa publiko osoaren aldean			
		2020	
		Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
4. kapitulua Arabako Merkataritza eta Industriako Ganbera Ofizialari 14.110€ Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberari 27.390€ Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberari: 41.500€		83.000	1
Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura			
Helburu dituen sektoreak:		Merkataritza- ganberak	
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:		Dirulaguntza izendunak	

Fitxa 1.1.5

Helburu estrategikoa:		Jarduera turistikoan bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatzea. Herrialdeko marka turistikoa: Euskadi Basque Country	
Organoa:		Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	
Programa:		Turismoa (75111)	
	Dirulaguntzen lerroa	Turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntzak (CTP)	
Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
			2020
Helburua	1 Turismoko produktu lehiakorren sorrera sustatzea		
	2 Gure helmuga bereizten duten elementuak bultzatzea oinarritzko elementu erreferente gisa, Euskadi Basque Country marka turistikoa posizionatzeko		
	1 EAEko enpresa turistikoek produktu turistiko eta esperientzia berriak sortzen nahiz merkaturatzen laguntzea, eta esperitu ekintzailea eta berrikuntzaren kultura sustatzea.		
	2 Sektoreko elkarteek, fundazioek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek egindako produktu turistikoak eta esperientziak sustatzeko eta merkaturatzeko jarduketetan laguntzea.		
Ekintza	3 Fundazioek, elkarteek eta enpresek antolatutako kultura-, gastronomia- eta kirol-ekitaldiak sustatzen eta merkaturatzen laguntzea, horien garrantziagatik eta parte hartzen duen publikoaren garrantziagatik, bai eta komunikabideetan duten oihartzunarengatik ere, Euskadiko turismoaren irudia eta posizionamendua sendotzen eta ostatu-gauen kopurua areagotzen laguntzen baitute.		
Adierazlea 1	Onartutako proiektuen kopurua		41
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-portzentajea, finantzaketa publiko osoaren aldean			
		2020	
		Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
4. kapitulua		717.000	1
Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura			
Helburu dituen sektoreak:		Enpresak, elkarteak, fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak	
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:		Lehia. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusia Antolatzeko Arauei buruzko Legearen Testu Bategineko 51.6. artikulua,	

Fitxa 1.1.6

Helburu estrategikoa:	EAEko jarduera turistikoan bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatzea
Organoa:	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza
Programa:	Turismoa (75111)
Dirulaguntzen lerroa:	Prestakuntza Deustuko Unibertsitatearekin

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		2020
Helburua	Turismo-eskaintzaren balio erantsia areagotzea, Euskadi aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzeko gaitasun handiagoa duen kalitate eta bikaintasuneko helmuga izan dadin	
Ekintza	Sektorearen profesionalizatzea sustatzea eta turismo-arloko lanbideak babestea	
1.adierazlea	Prestakuntzarako hitzarmena Deustuko Unibertsitatearekin, ikasleen praktiken modalitatean (bekadunen kopurua)	157

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-portzentajea, finantzaketa publiko osoaren aldean		
	2020	
	Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
4. kapitulua	25.000	1

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Deustuko Unibertsitatea
Emakida-prozedura eta instrumentalizatze modua:	Dirulaguntza izenduna

Fitxa 1.1.7

Helburu estrategikoa:	Jarduera turistikoan bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatzea
Organoa:	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza
Programa:	Turismoa (75111)
Dirulaguntzen lerroa	Dirulaguntza ISEAK fundazioari

Helburuak, ekintzak eta adierazleak			2020	2021
Helburua	Turismo-eskaintzaren balio erantsia areagotzea, Euskadi aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzeko gaitasun handiagoa duen kalitate eta bikaintasuneko helmuga izan dadin			
Ekintza	Sektorearen profesionalizatzea sustatzea eta turismo-arloko lanbideak babestea			
Adierazlea 1	Turismo sektoreko enpleguaren karakterizazio xehatuaren azterketa eta etorkizuneko ekintzak bideratuko dituen diagnostikoa		1	1

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-portzentajea, finantzaketa publiko osoaren aldean		
	2020	2021
4. kapitulua	40.000 €	40.000 €

Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura	
Helburu dituen sektoreak:	Turismo sektorea
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:	Dirulaguntza izenduna

Fitxa 1.1.8

Helburu estrategikoa:		Jarduera turistikoan bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatzea	
Organoa:		Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza	
Programa:		Turismoa (75111)	
	Dirulaguntzen lerroa	Dirulaguntza izenduna Basque Culinary Center erakundeari	
Helburuak, ekintzak eta adierazleak			
			2020
Helburua	Turismo-eskaintzaren balio erantsia areagotzea, Euskadi aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzeko gaitasun handiagoa duen kalitate eta bikaintasuneko helmuga izan dadin		
Ekintza	Sektorearen profesionalizatzea sustatzea eta turismo-arloko lanbideak babestea		
Adierazlea 1	Ostalaritza sektorea prestatzeko eta profesionalizatzeko dirulaguntza izenduna		1
Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-portzentajea, finantzaketa publiko osoaren aldean			
		2020	
		Zenbatekoa eurotan	Urtesari kopurua
4. kapitulua		50.000	1
Helburu dituen sektoreak eta emateko prozedura			
Helburu dituen sektoreak:		Fundazioa	
Emakida-prozedura eta instrumentalizatzeko modua:		Dirulaguntza izenduna	

Fitxa 1.2.1

Helburu estrategikoa:	Herraldeko marka turistikoa: Euskadi Basque Country
Organoa:	Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza
Programa:	Turismoa (75111)
Dirulaguntzen lerroa:	Dirulaguntza izenduna Euskadiko hiru jazz-jaialdietarako (Getxo, Gasteiz eta Donostia)

Helburuak, ekintzak eta adierazleak		2020
Helburua	Euskadi Basque Country marka eta dagokion <i>claim</i> -a sendotzea Euskadiko turismo- politikaren kudeaketa-estrategia koordinatua lagunduz.	
